

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Martina Alava Zumalakarregi*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1922)*

Aurkibidea



## Biografia



Zubieta kalean jaio zen, Kontxako pasealekuaren ondoan, Erlojuen pare horretan. Ama Gabiriakoa zen, eta janari-denda zeukan etxe azpian. Aitak, Zumarragakoa bera, bankuan egiten zuen lan. Lau senide ziren. Mojekin ibili zen eskolan, Presentacion de Maria ikastetxean, giro erabat erdaldunean. Hondartzan jolasten zuten. Gerra garaian Zumaian egin zuen hilabete. Hotel batean egin zuen lan hainbat urtez, eta bulego batean ere bai gero. Ez dauka ohiturarik euskaraz hitz egiteko.

## Zintak

### DON-037

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-19
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

## Pasarteak

### 1. Zubieta kalea nolakoa zen

- **Erref:** DON-037/003
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:03:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

#### Laburpena:

<p>Zubieta kalean jaioa, Donostian. Kontxa parean ez zegoen etxe handirik; dena villak ziren. Neguan itxita egoten ziren. Bere kalean, berriz, jende xumea bizi zen.</p>

#### Transkripzioa

- Eta nun jaiotakoa zera zu?
- Donostin.

- Ta ze tokitan?  
 - Calle Zubietan.  
 - Zubieta kalian?  
 - Calle Zubietan.  
 - Eta nolakoa zan garai hartan?  
 - Calle Zubieta zan oso diferentea. Zeaittio lehenengo fila, bueno, Kontxaa ematen zon kalek, ez, etxek, danak villak zien. Etxe haundiik ez zeon. Hotel de Londres eta Continental zien haundik, baiño bestela etxe... familiko etxek zien. Bazan bat, uste det, bi etxe zien jende diferentea bizi zana, baiño danak bestela zien famili bat. Ta negun gehienak itxitta egoten zien, zeaittio zan kanpoko jendea, madrildarrak eo. Kalea zan oso-oso-oso trankille. Ni bizi nitzen alde guztie, beste aldea, beste... jende sentzilloa bizi zan. Ez zan aurreko [...], markesak eta zeak eta. Duque de Cubas, el Marqués de Tola, el Conde de [...].

## 2. Zubieta kalea nolakoa zen II

- **Erref:** DON-037/005
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:07:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

### Laburpena:

<p>Kaitik arrainarekin Zubieta kaletik pasatzen ziren. Tranbia handik pasatzen zen. Orly hotela dagoen tokian alhondiga zegoen lehen. Biarritz hotela ere gertu zegoen. Londres, Continental eta Niza hotelak ere bazeuden. Kotxe gutxi zebilen, eta lasaia zen.</p>

### Transkripzioa

- Kaitik?  
 - Bai, kaitik pasatzen zien kamionak gabez arraia ematea. Eske kalea zan oso diferentea oindik.  
 - Eta tranbia hortik pasatzen zan?  
 - Tranbia pasatzen zan... tranbia ez dakit nundikan ertetzen zan, Boulevarretik ertengo zan. Bai, Boulevarretik. Eta pasatzen zan tranbia Antiguora juteko. Zeren bi tranbia: Monte Igeldo ta Bentaberri.  
 - Eta zuek jaio zineten villak bazun izenik?  
 - Ez, gu jaio giñen villetan ez, atzeko etxeetan. Kalle Zubieta da kalle bat... hau da Kontxa ta hau da kalle Zubieta. Ta Kontxaa ematen duen etxek beste aldetik zien etxe txikik, etxe... familiko etxek.  
 - Bai, villak, ez?  
 - Bai.  
 - Eta gero ya zuenak.  
 - Eta gero gure kalea bi espaloi besteik ez zien han goien. Kalle Zubieta hasten zan Hotel Londresen paren, baiño han zeon etxe bat bakarrik. Eta gero zeon oain Hotel Orly daon tokien zeon alhondiga. Alhondiga badakizu zer dan?  
 - Baiña hori arraiantzat eta?  
 - Ez, ez, zan ardok.  
 - Ardok?  
 - Bai, edarie uste det bakarrik ibiltzen zala. Zan edifizio haundi bat, nola esango nizuke? Estilo... [lehen] Bretxa zan bezela, harrizko etxe bat

haundie, ate haundikin, eta han zeon alhondiga. Pixkat beheraxeon zeon Hotel Biarritz, baiño hurre ez zan ya tokatzen kalle Zubieta, zeaitio hor kalea okertu itten zan.

- Orduan, hor hotel asko zeuden.

- Bai, zeon... zeren Hotel Londres eta Continental, ni jaio nitzenen nik han betittik ezautu dittut. Hotel Niza´re bai. Hotel Niza zan Biarritz-kon jabe berena. Eta Hotel Biarritz zeon pixkat beheraxeon, ya kalea ez zan eitten, eske hor zeon plaza txiki bat zeon erdin. Oaiñik ala dao. Eske zan kale bat bastante ze gutxikin, bizi gutxikin. Kotxek oain daren bezela ez zien izaten, oso alek zien. Eta kale hartan, gaiñea, negun jende gutxi bizi zan, bizi giñen.

### 3. Aita bankuko langilea eta ama dendaria

- **Erref:** DON-037/006
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:07:12. **Bukatu:** 00:12:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

#### Laburpena:

Lau anai-arreba ziren. Aita Zumarragakoa zen eta ama Gabiriakoa. Aitak banku batean egiten zuen lana. Gazterik hil zen, 43 urterekin. Amak denda zeukan etxe behean, janari denda. Pisura saltzen zuten azukrea eta kafea. Karroarekin joaten ziren dendara, fruta eskaintzen. Platanoak. Ogia.

### 4. Emakume baserritarrak astoekin

- **Erref:** DON-037/008
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:12:13. **Bukatu:** 00:14:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

#### Laburpena:

Zubieta kalera baserritar asko joaten ziren astoarekin, Igeldotik oinez. Bodegetan uzten zituzten astoak, eta zestoak buruan jarrita joaten ziren. Beraien etxera Usurbilgo esnezalea joaten zen. Amaran orain bizi den etxera ere eramaten zuten esnea hasieran.

### 5. Eskolara mojetara

- **Erref:** DON-037/010
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:17:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

**Laburpena:**

Eskolara mojetara joaten zen: Presentacion de Maria. Atotxan zuten komentua. Merkatariza Eskola. Foruen pasealekuan beste eskola txiki bat zuten mojek, eta hara joaten ziren ahizpa eta bera. Anaia zaharrena lizeo frantsesera joan zen, eta bestea fraideetara.

**6. Eskolara mojetara II**

- **Erref:** DON-037/011
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:17:39. **Bukatu:** 00:20:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

**Laburpena:**

Uniformearekin joaten zen eskolara, urdin ilunez eta kapelarekin. Mojak frantsesak ziren. Frantsesez ikasten zuen gehiena. Euskaraz, etxean bakarrik.

**7. Jaunartzea, eskolako kapilan**

- **Erref:** DON-037/012
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:20:32. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

**Laburpena:**

Igandero meza nagusira, Buen Pastorrera. Hantxe bataiatu zuten. Jaunartzea eskolako kapilan egin zuen, Atotxan; Santa Teresaren jantziarekin, mojak jantzita.

**8. Umetako jolasak**

- **Erref:** DON-037/013
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

**Laburpena:**

Umetako jolasak. Eskolan Foruen pasealekuan ibiltzen ziren, lasai asko. Auzoan ere jolasten zuten, tokia bazuten eta. Hondartzara ere joaten ziren. Bere garaian neskak neskekin ibiltzen ziren. Kanikekin ibiltzen ziren hondarretan zirkuetoak egiten; Lasarteko auto lasterketak imitatzen. Ez zen askotan bainatzen.

**9. Hondartzan, bañeruak**

- **Erref:** DON-037/014

- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:25:10. **Bukatu:** 00:28:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

#### **Laburpena:**

Hondartzan aldaleku partikularrak zeuden. Bañeruak zituzten. Amak beraiek igeri egiten ikastea nahi zuen, baina berari ez zitzaion gustatzen. Bainularien jantzia nolakoa zen; ez zen batere eroso. Paco Yoldi igeriketa irakasleak kaian ematen zituen eskolak; bere anaia harekin ibili zen ikasten. Martina mendizalea zen.

### **10. Gabarrak Urumean**

- **Erref:** DON-037/015
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:28:36. **Bukatu:** 00:30:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

#### **Laburpena:**

Urumea orain baino txukunago zegoen. Gabarrak joaten ziren urtero, zikina ateratzera. Hondarra ere ateratzen zuten.

### **11. Labaderoak eta gobaragileak**

- **Erref:** DON-037/016
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:30:15. **Bukatu:** 00:32:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

#### **Laburpena:**

Ez da labaderoan ibili arropa garbitzen, baina bazeuden. Emakumeak joaten ziren. Baserritarrek ere joaten ziren gobara bila; Igeldoko emakume batek garbitzen zizkien maindireak beraiei.

### **12. Gerra: Bonbardaketak, Donostian**

- **Erref:** DON-037/018
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:33:49. **Bukatu:** 00:36:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

<p>Garaje batean ezkutatzen ziren sirenak jotzen zuenean. Hegazkinak joaten ziren bonbardatzera eta Cervera itsasontziak kanoikadak botatzen zituen. Zubieta kalean bi kanoikada erori ziren, villetan. Londres hotelean gerrako ospitala jarri zuten, eta hegazkinek jaurtitako bonba bat barrura erori zen. Gudarien kuartela non zegoen. Umetan beldurrik ez zuten.</p>

**13. Gerra: Zumaiara ihesi, izebarekin**

- **Erref:** DON-037/020
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:36:35. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena:**

Nazionalak Donostiara sartu aurretik Zumaiara joan ziren izeba batekin. Etxe bat alokatu zieten. Zumaian sartu zirenean, han zeuden. Beldurra pasatu zuten, mairuak zetoze eta. Gero etxera bueltatu ziren. Karlistak Nafarroatik etorri ziren.

**14. Gerra: anaia Bizkaia aldean**

- **Erref:** DON-037/021
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:38:35. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

Anaia ez zen frontean ibili, baina Bizkaia aldean ibili zen. FUE ikasle elkartekoa zen, ezkertiarra. Gaixotu egin zen, tifusarekin, eta gero interprete lanetan ibili zen Bilbon.

**15. Gerra: ama, Donostian**

- **Erref:** DON-037/022
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:40:47. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

Ama Donostian geratu zen, denda zaintzeko; izeba ere geratu zen. Gehienak joan egin ziren. Beldur handia pasatu zuen amak. Gizon bat nola hil zuten ikusi zuen amak. Amaren anaia sindikalista zen, eta hari zer gertatuko ote zitzaion, beldurrez beti. Gaixo bueltatu zen, eta hil egin zen.

**16. Gerra: anaiaren ibilerak**

- **Erref:** DON-037/023
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:45:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

#### **Laburpena:**

Anaiaren ibilerak. Galizian eta Santoñan egon zen preso. Ama semearen bila ibili zen batean eta bestean.

### **17. Gerraostea: beldurra nagusi**

- **Erref:** DON-037/025
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:46:05. **Bukatu:** 00:49:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

#### **Laburpena:**

Zumaian hilabete egin zuten. Trenik ez zegoen. Gerraostean beldurrez bizi ziren. Beraien eraikinean maistra errepublikar bat bizi zen; etxea hustu egin zuten, eta prezintatu. Euskaltzalea izatea aski zen etxea ixteko. Jende asko joan zen Donostiatik ihesi, kaitik baporeetan, Bilbo aldera...

### **18. Gerraostean, janari urritasuna**

- **Erref:** DON-037/026
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:53:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

#### **Laburpena:**

Gerraosteko gosea eta errazionamendua. Berak ez zuen goserik pasatu. Denda utzi egin zuen amak. Estraperloarekin dirua egin zuten batzuek, baina ama ez zen zalea. Olio falta zen: olio litroa hogei duro ordaindu zuen amak. Maskorrak eta arroz esnea jaten hasi zen jendea. Errazionamenduko ogia oso txarra zen, horia eta gogorra.

### **19. Gerraosteko errazionamendua**

- **Erref:** DON-037/027
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:53:42. **Bukatu:** 00:55:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

#### **Laburpena:**

Beraien esnezaleak anaiak zeuzkan Rezola lantegian lanean. Haiei errazionamendua ematen zieten, eta esnezaleak prezio berean saltzen zion arroza amari, beraiek soberan zutelako.



## 20. Pospolinak, Kursaalean

- **Erref:** DON-037/031
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:58:43. **Bukatu:** 00:59:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

### Laburpena:

Aita 1933an hil zen. Aurretik, Gran Kursaalean pospolinen dantzena jarri zuten. Igandetan txistulariak izaten ziren, eta joaten ziren.

## 21. Gerraosteko isiltasuna

- **Erref:** DON-037/033
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:00:40. **Bukatu:** 01:02:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

### Laburpena:

Gerraostean jendea isilik bizi zen, baina beste toki batzuetan baino gehiago hitz egiten zela uste du. Franco hil zenean hasi zen jendea hizketan. Galiziako batek esan ziena.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2025-12-04*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com